

Biribilko 2018-2019 ikastaroen ebaluazioa

Biribilko 2018-2019 ikasturteko euskara ikastaroetan parte hartu duten merkatariek egindako balorazioaren emaitza nagusiak eskaintzen ditugu jarraian.

1. 2018-2019 Ikastaroen ezaugarriak eta matrikulazioari buruzko datu nagusiak

1. IKASTAROEN ESKAINTZA

A. EUSKARA KOMERTZIALEKO OINARRIZKO IKASTAROA	
HARTZAILEAK	Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Bilboko establezimenduetako merkatarik edota enplegatuak.
HELBURUA	Ahozko oinarritzko komunikazioa lantzea, merkataritzako egoera arruntetarako hizkuntza-oinarriak ematea.
IRAUPENA	90 ordu.
ORDAINDU BEHARREKO MATRIKULAREN PREZIOA	90,00 €. Euskaltegietan adieraziko dizute nola ordaindu behar duzun matrikula.
B. EUSKARA KOMERTZIALA HOBETZEKO IKASTAROA	
HARTZAILEAK	Euskara zerbait hitz egiten dakiten Bilboko establezimenduetako merkatarik edota enplegatuak.
HELBURUA	Merkataritza arloko ahozko eta idatzizko euskara maila hobetzea.
IRAUPENA	90 ordu.
ORDAINDU BEHARREKO MATRIKULAREN PREZIOA	90,00 €. Euskaltegietan adieraziko dizute nola ordaindu behar duzun matrikula.

2. DATAK, EGUNAK ETA ORDUTEGIAK

DATAK 2 aukeretako bat hautatu		ASTEKO KLASA EGUNAK Astean 2 egun	KLASE ORDUTEGIAK Aukeratzeko: goizez ala eguerdiz
1. AUKERA	Hasiera: 2018-urria-15 Amaiera: 2019-ekaina-10	Astelehenak eta Asteazkenak	1. Goizez: 8:00 - 9:30 2. Eguerdiz: 14:15 - 15:45
2. AUKERA	Hasiera: 2018-urria-16 Amaiera: 2019-ekaina-20	Astearteak eta Ostegunak	1. Goizez: 8:00 - 9:30 2. Eguerdiz: 14:15 - 15:45

3. BIRIBILKO IKASTAROETAN MATRIKULATZEKO INFORMAZIOA

MATRIKULATZEKO EPEA	2018ko irailaren 10etik urriaren 16ra arte.
MATRIKULATZEKO MODUAK ETA KLASAK HARTZEKO LEKUAK	Matrikulazioa bi modutara egin daiteke: Biribilko web-orriaren Heziketa atalean dagoen izen-emate formularioa online betez; edo bestela, ondoren aipatzen den euskaltegiren batera joanda. Klaseak ere horietan emango dira: - BILBO ZAHARRA, Posta kalea, 8 (Tel: 94 4158292) - GABRIEL ARESTI, Done Bikendi kalea, 2 – 4. solairua (Tel: 94 4237591) - INDAUTXUKO AEK, Urkixo Zumarkalea, 88 – 1. A (Tel: 94 4413474) - JUAN MATEO ZABALA, Gordoniz kalea, 22 (Tel: 94 4221388) - LIZARDI AEK, Txakur kalea, 1 – 1. (Tel: 94 4168200) - MATXINTXU AEK, Ramón y Cajal Etorbidea, 8 (Tel: 94 4752233) - SANTUTXUKO AEK, Arbidea kalea, 21 (Tel: 94 4117656) - ULIBARRI EUSKALTEGIA, Gardoki kalea, 3 – 1. (Tel: 94 4162472)

1. Taula: Biribilko 2018-2019 ikastaroen matrikulazioari buruzko datu nagusiak

		Kop.	%
Ikastaro mota	Euskara komertzialeko oinarritzko ikastaroa (90 ordukoa)	120	78,4
	Euskara komertziala hobetzeko ikastaroa (90 ordukoa)	33	21,6
Klase egunak	Astelehen eta asteazkenak	77	50,3
	Astearte eta ostegunak.....	76	49,7
Klaseen ordutegia	Goizez: 8:00-9:30	54	35,3
	Eguerdiz: 14:15-15:45	99	64,7
GUZTIRA		153	100,0

Iturria: Bilboko euskaltegiak. Siadecok landua, 2019

2018-2019 ikasturtean, guztira 153 izan dira Biribilko ikastaroetan matrikulatu diren merkatariak, aurreko ikasturteko maila berean (150 izan ziren 2017-2018an), baina aurrekoetan baino gutxiago (2016-2017an 170 izan ziren eta 2015-2016an, aldiz, 182).

Horietatik, gehienak euskara komertzialeko oinarritzko ikastaroan matrikulatu dira (10etik ia 8).


Guztira, 15 ikasle-talde osatu dira: 8 oinarritzko-mailan, eta 7, aldiz, hobekuntza-mailan.

Ikastaroen egunei dagokienez, ikasleen erdia astelehen eta asteazkenetan joan da klasera, eta beste erdia, aldiz, astearte eta ostegunetan. Aipatzekoa da hobekuntza-mailako hiru taldeak astearte eta ostegunetan izan direla.

Bestalde, ordutegiari dagokionez, aldeak nabarmenagoak izan dira; ia %65 eguerditako ordutegian joan da euskaltegira, eta beste %35a, goizez (08:00-09:30).

2. Ikasleen ezaugarri soziodemografikoak


1. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak sexuaren arabera - bilakaera (%)



Iturria: Siadeco, 2019.

Aurreko ikasturteetako joerarekin jarraituz, 2018-2019 ikasturtean ere emakumezkoak izan dira parte hartu duten gehienak, 10etik 7 pasatxo (ia %75), hain zuzen.


2. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak adinaren arabera - bilakaera (%)



Adinari dagokionez, aurreko ikasturtearekin alderatuta igo egin da ikasleen batez besteko adina; 45,6 urtekoa izan da ikasturte honetan, eta 44,5 urtekoa izan zen 2017-2018an. 51 urte eta gehiagoko ikasleen pisua nabarmen igo da (iaz baino ia 7 puntu gehiago), eta proportzio berdintsuan jaitsi da 41-50 urte bitartekoena. Era berean, 2 puntu jaitsi da 21-30 adin-tartearen parte-hartzea. Bestalde, 31-40 urtekoen pisua areagotu egin da, ia 5 puntu.

3. Ikasleek lan egiten duten merkataritza establezimenduaren jarduera-adarra eta kokatuta dagoen auzunea

3. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleek lan egiten duten establezimenduaren jarduera adarra (%)




Iturria: Siadeco, 2019.

Ikasleen ia erdia (%49,6) bi jarduera-adarretan ari da lanean: %34,5ek zerbitzu sektoreko establezimenduren batean egiten dute lan, eta %15,1ek, aldiz, jantzi eta oinetako dendetan. Bigarren adar honetatik oso gertu, ikasleen ia %13ak bestelako produktuak saltzen ditu, eta %11,5ak, berriz, elikagai freskoak. Gainontzeko jarduera-adarrak aipatutako ehunekoen azpitik daude.

Datuok aurreko ikasturteko kopuruekin alderatzen baditugu, nabarmen igo da zerbitzuen sektorean lan egiten duten ikasleen presentzia (ia 14 puntuko igoera). Era berean nabarmena den arren, modu apalago batean jaitsi da jantzi eta oinetakoak eta bestelako produktuak saltzen dituzten merkatarien parte-hartzea; 5,7 puntu eta 3,3 puntuko jaitsiera izan dute, hurrenez hurren.

4. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleek lan egiten duten establezimendua kokatuta dagoen auzoa (auzo nagusiak) (%)




Iturria: Siadeco, 2019.

Biribilko ikastaroetako ikasleen saltokien kokapena kontuan hartzen badugu, lau auzo nabarmentzen dira: Indautxu, Zazpi Kaleak, Abando eta Santutxu. Horietan, hain zuzen, ikaslegoaren erdiak baino gehiagok (ia %62ak) egiten du lan: %20,9ak, Indautxun; %15,8ak, Zazpi Kaleetan; %15,1ak, Abandon; eta %10,1ak, Santutxun.

Aurreko ikasturteko datuekin alderatuz gero, Santutxuko establezimenduetan lan egiten duten langileen presentzia igo egin da, eta aldiz, jaitsi egin da Bilbo Zaharrean eta Deustun lan egiten dutenena.

4. Euskara ikastaroetan matrikulatzeko motibazioa

5. Grafikoa: Euskara ikastaroan matrikultzeko arrazoi nagusia (%)



Iturria: Siadeco, 2019.


Biribilko ikastaroetan parte-hartzeko arrazoiaren artean, euskara ikasi nahi izatea da gehien nabarmendu dena (%31,7).

Gainontzeko ikasleek, aldiz, arrazoi zehatzagoak eman dituzte. %23,7 interes profesionalak bultzatuta matrikulatu da (“bezeroekin hitz egin”, “mejorar el euskera de cara al bar; quería un enfoque comercial...”), eta beste %10,1ek, interes profesionala ez ezik, pertsonala ere aipatu ditu (“seme-alabekin eta bezeroekin hitz egin ahal izatea”, “porque me gusta hablarlo en el comercio o en casa”...). Interes pertsonalak aipatu dituenik ere izan da; hain zuzen, ikasleen %8,6ek eman ditu halako arrazoiak: “seme-alabekin hitz egiteko”, “erabiltzeko normalean nire bizitzan”...

Azkenik, ikasle multzo bat ere izan da (%5,0) ikastaroaren ezaugarriak animatuta matrikulatu dena (“por el precio”, “el horario me viene bien”...).

5. Euskara ikastaroen egindako balorazioa

6. Grafikoa: Ikastaroen hainbat alderdiren inguruan ikasleek egindako batez besteko balorazioa, ikastaro motaren arabera (0tik 10erako eskalan, non 0=oso balorazio txarra den eta 10= oso balorazio ona)



Iturria: Siadeco, 2019.

Biribilko ikastaroetako ikasleek ikastaroen balorazio positiboa egiten dute, bere osotasunean kontuan hartuta, baita ikastaroaren alderdi batzuren inguruan ere. Hain zuzen, 0tik 10erako eskala batean, 8,44ko puntuazio orokorra izan dute ikastaroek, eta 9,10 eta 7,46 arteko puntuazioa jaso dute baloratutako alderdi guztiek. Aurreko ikasturtean bezalaxe, oinarrizko ikastaroetako ikasleen balorazioen batez bestekoak, oro har, zertxobait altuagoak dira hobekuntzako ikasleenak baino, baina aldeak oso txikiak dira.

Ikasleek egindako balorazio nagusiak ondorengoak dira, batez besteko puntuazio altuenetik baxuenera:


- Puntuazio altuena lortu duten hiru alderdiek, 9tik gorako batez besteko puntuazioa jaso dute: euskaltegiaren kokapenak (9,10), ikasle taldeak (9,06) eta irakasleek (9,04), hain justu.
- Horietatik oso gertu ikastaroaren prezioa agertzen da, 8,86ko batez besteko puntuazioarekin.
- Zertxobait beherago, eta batez besteko orokorraren inguruan daude ikastaroa emateko datak, eta irakaskuntza sistema.
- Batez bestekoaren azpitik, eta euren artean alde handirik gabe daude beste hiru alderdi: matrikulatzeko prozedura (8,33), irakatsitako edukiak (8,27) eta erabilitako materialak (8,25).
- Puntuazio baxuena hiru alderdik jaso dute: ordutegia, ikastaroaren iraupena eta klasearen homogeneotasuna. Nabarmendu behar da lehenengo bi alderdiek 8tik gorako puntuazioa jaso dutela, azkenekoak ez bezala.

Irakasleen balorazioa ere positiboa izan da (batez besteko puntuazio orokorra 7,29), ikasleena baino puntu bat baxuagoa izan arren. Ikasleek klasean erakutsitako interesari eta parte-hartzeari eman diote irakasleek puntuaziorik altuena (7,93), eta jarraian, maila berean baloratu dituzte irakaskuntza sistema eta erabilitako materiala (liburuak, fitxak...), 7,73ko puntuazioarekin.

Irakasleen baloraziorik baxuena taldearen tamainak (6,80) eta klaseko euskara mailaren homogeneotasunak (6,07) jaso dute; biak ala biak 7 azpiko batez besteko puntuazioarekin.

6. Ezagutza hautemandako aurrerapenak, ahoz eta idatziz

7. Grafikoa: Ikastaroa hasi aurretik zuten euskara komertzialeko ezagutza maila-ahoz eta idatziz- eta amaitutakoan lortutakoa, ikastaro motaren arabera (batez besteko balioak 0tik 10erako eskalan)




Iturria: Siadeco, 2019.

Ikastaroak amaitu ondoren, bi ikastaro motetan parte hartu duten ikasleek aurrerapen adierazgarria igarri dute euren ahozko nahiz idatzizko euskararen ezagupen mailan:

- Oinarrizko ikastaroetako ikasleen iritziz, beren abiapuntuko batez besteko ezagutza maila ahoz 2,93 izatetik, 4,92 izatera pasa da; eta idatzizkoa, 3,21 izatetik, 5,21 izatera.
- Hobekuntza ikastaroetako ikasleen artean berriz, ahozko hasierako batez besteko euskara maila 4,94 izatetik 6,38 izatera pasa da; idatzizkoa, berriz, 5,31tik 6,34ra.

8. Establezimenduko euskararen erabileran izandako eragina

8. Grafikoa: Biribilko ikastaroetara joaten hasi de netik, zein neurritan erabiltzen du euskara establezimenduan (%)




Iturria: Siadeco, 2019.

Ikastaroetan parte-hartu duten merkatarien gehiengoak (%72,7) euskara gehiago erabiltzen du lan egiten duen establezimenduan ikastaroetan hasi zenetik: %22,3ek lehen baino askoz gehiago erabiltzen dute, eta %50,4ek, lehen baino zerbait gehiago. Hori horrela eta eurek emandako erantzunak aztertuta, ikastarook Bilboko establezimenduetako euskararen erabileran eragin adierazgarria dutela esan daiteke.

9. Biribilko ikastaroekiko espektatibaren asetze-maila eta aholkatze-maila beste merkatariek ikastaroetan parte hartu dezaten

6. Grafikoa: Ikastaroak ze in mailatan erantzun dien ikasleen espektatibei eta zenbateraino aholkatuko lioketen beste merkataria bati (batez besteko balioak 0tik 10erako eskalan) (ikasleen erantzunak)



Iturria: Siadeco, 2019.

Aurtengo ikasleek emandako batez besteko puntuaketari erreparatuz gero, aurretik euskara ikastaroekiko zituzten espektatibei maila egokian erantzun zaiela esan daiteke; oinarrizko ikastaroetan 7,06koa da batez besteko puntuaketa hori, hobekuntza ikastaroetan 7,66, eta orokorrean, 7,19.

Bestalde, ikastaro hauek beste merkatarientzat ere oso gomendagarriak direla uste dute aurtengo ikasleek. 0tik 10erako eskalan, 8,59koa da batez besteko aholkatze-maila; kopuru hori altuagoa da oinarrizko ikastaroa egin dutenen artean (8,69), hobetzeko ikastaroa egin dutenen artean baino (8,25).